



## BARNE-ARGIZTAPENA (barne-argiztapenerako sistemaren birmoldaketa) INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

Prozedura irekiaren eta lehiaketa bidezko esleipenaren bitartez kontratatzeko ingurumen-irizpideak

Oinarrizko maila	Maila aurreratua
<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>	<b>KONTRATUAREN XEDEA:</b>
Kontratu honen xedea da [sartu eraikinaren izena] eraikinaren barne-espazioak argiztatzeko sistemaren proiektua idazteko zerbitzua kontratatzea, argiaren kalitatea eta energia- zein ingurumen-efizientzia irizpide izanik.	Kontratu honen xedea da [sartu eraikinaren izena] eraikinaren barne-espazioak argiztatzeko sistemaren proiektua idazteko zerbitzua kontratatzea, argiaren kalitatea eta energia- zein ingurumen-efizientzia irizpide izanik.
<b>ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoa):</b>	<b>ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (nahitaez bete beharrekoa):</b>
<p><b>Irizpide orokorra</b></p> <p>1. Proiektuak Eraikingintzaren Kode Teknikoaren HE 3 oinarrizko dokumentuko (EKT, HE 3 OD) eskakizunak beteko ditu, eta harago joango da, bermatuko baitu IEEB balioa gutxienez EKTn definitutako maximoak baino % 10 txikiagoa izango dela definitutako eremu bakoitzerako.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>	<p><b>Irizpide orokorra</b></p> <p>1. Proiektuak Eraikingintzaren Kode Teknikoaren HE 3 oinarrizko dokumentuko (EKT, HE 3 OD) eskakizunak beteko ditu, eta harago joango da, bermatuko baitu IEEB balioa gutxienez EKTn definitutako maximoak baino % 20 txikiagoa izango dela definitutako eremu bakoitzerako.</p> <p>2. Gainera, proiektuan definitutako eremu bakoitza argiztatzeko behar den urteko energiaren kalkulua egingo da EN 15193</p>

	<p>estandarren edo haren baliokidearen arabera (LENI balioa, kWh/m2.urte unitatean adierazia), eta horrek ahalik eta txikiena izan beharko du. Kalkuluak luminariez kanpoko urruneko kontroleko sistemak hartuko ditu kontuan, baina ez larrialdiko argiztapen-sistemak.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>
<p><b>Zirkuituen sektorizazioa</b></p> <p>2. Zirkuitu elektrikoek ahalik eta sektorizaziorik handiena ahalbidetuko dute, baita barneko argiztapen-instalazioaren kudeaketa independentea ere, erregulazio- eta kontrol-sistema bereziak aplikatu ahal izateko. Gutxienez honako hauek bermatuko dira: solairukako sektorizazioa, solairu bakoitzeko eremukakoa (lan-eremuak, sarbideak, etab.) eta argi naturala aprobetxatzeko tarteetakoa leiho batetik 5 metro baino gertuago kokatutako tarteetan eta EKTn definitutako irizpideak betetzen dituzten argi-zuloen azpian.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>	<p><b>Zirkuituen sektorizazioa</b></p> <p>3. Zirkuitu elektrikoek ahalik eta sektorizaziorik handiena ahalbidetuko dute, baita barneko argiztapen-instalazioaren kudeaketa independentea ere, erregulazio- eta kontrol-sistema bereziak aplikatu ahal izateko. Gutxienez honako hauek bermatuko dira: solairukako sektorizazioa, solairu bakoitzeko eremukakoa (lan-eremuak, sarbideak, etab.) eta argi naturala aprobetxatzeko tarteetakoa leiho batetik 5 metro baino gertuago kokatutako tarteetan eta EKTn definitutako irizpideak betetzen dituzten argi-zuloen azpian.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>
<p><b>Argiztapena erregulatzeko eta kontrolatzeko sistemak</b></p> <p>3. Proiektuak eremu bakoitzerako argiztapena kontrolatzeko sistema efiziente eta egokienak izango ditu, aurreikusitako erabileren eta okupazioaren arabera. Edonola ere, proiektuak sistema hauek aurreikusiko ditu gutxienez, betiere erabiltzaileen segurtasuna bermatzen bada:</p>	<p><b>Argiztapena erregulatzeko eta kontrolatzeko sistemak</b></p> <p>4. Proiektuak eremu bakoitzerako argiztapena kontrolatzeko sistema efiziente eta egokienak izango ditu, aurreikusitako erabileren eta okupazioaren arabera. Edonola ere, proiektuak sistema hauek aurreikusiko ditu gutxienez, betiere erabiltzaileen segurtasuna bermatzen bada:</p>

<ul style="list-style-type: none"> <li>- Presentzia-detekttagailu tenporizatu bidez pizteko eta itzaltzeko kontrola, edo sakagailu tenporizatu bidezkoa noizbehinkako erabilera duten eraikineko eremuetan (komunak, eskailerak, aparkalekuak, etab.).</li> <li>- Itzaltze automatikoa ohiko erabilera-ordutegiaren amaieran, argiztapena sakagailuaren bidez eta, behar izanez gero, tenporizadore bidez berrezartzeko aukerarekin.</li> </ul> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Presentzia-detekttagailu tenporizatu bidez pizteko eta itzaltzeko kontrola, edo sakagailu tenporizatu bidezkoa noizbehinkako erabilera duten eraikineko eremuetan (komunak, eskailerak, aparkalekuak, etab.).</li> <li>- Itzaltze automatikoa ohiko erabilera-ordutegiaren amaieran, argiztapena sakagailuaren bidez eta, behar izanez gero, tenporizadore bidez berrezartzeko aukerarekin.</li> <li>- [Halako sistemak edukitzea zentzua duen eraikin handietan] Argiztapenaren telekudeaketarako sistema.</li> </ul> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus egiaztapen-dokumentazioa).</p>
<p><b>Luminariak eta lanparak</b></p> <p>4. Argi-iturriek(lanparek) D edo goragoko energia-efizientzia izango dute, 209/2015 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren –argi-iturrien energia-etiketatzeari buruzkoaren– arabera.</p> <p>5. LED/OLEDentzat, L80B50 gisa adierazitako bizitza baliagarri nominala honako hau izango da gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 20.000 ordu norabidezko eta ez-norabidezko LED lanpargetarako.</li> <li>- 35.000 ordu gainerako LED lanpara eta luminariantzat.</li> </ul> <p>LED/OLED ez direnentzat, EN 50285 arauaren edo haren baliokidearen arabera kalkulaturako batez besteko bizitza (edo bizi-denbora) hau izango da, gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 10.000 ordu bonbilla-zorro bakarreko iturrietarako.</li> <li>- 20.000 ordu bonbilla-zorro bikoitzeko iturrietarako.</li> </ul>	<p><b>Luminariak eta lanparak</b></p> <p>5. Argi-iturriak LED edo OLED motakoak izango dira kasu guztietan, behar bezala justifikatutako eta kontratatzailearekin adostutakoetan izan ezik.</p> <p>6. LED/OLEDentzat, L80B50 gisa adierazitako bizitza baliagarri nominala honako hau izango da gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 20.000 ordu norabidezko eta ez-norabidezko LED lanpargetarako.</li> <li>- 35.000 ordu gainerako LED lanpara eta luminariantzat.</li> </ul> <p>Salbuespen gisa LED/OLED ez direnentzat, EN 50285 arauaren edo haren baliokidearen arabera kalkulaturako batez besteko bizitza (edo bizi-denbora) hau izango da, gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 10.000 ordu bonbilla-zorro bakarreko iturrietarako.</li> <li>- 20.000 ordu bonbilla-zorro bikoitzeko iturrietarako.</li> </ul>

<p><b>Egiaztapena:</b> Abal hauetako bat aurkeztu beharko da: 2. proposatutako produktu bakoitzarentzat (ikus Egiaztapen-dokumentazioa).</p>	<p><b>Egiaztapena:</b> Abal hauek aurkeztu beharko dira: 2, proposatutako produktu bakoitzarentzat (ikus Egiaztapen-dokumentazioa).</p>
<p><b>ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:</b></p>	<p><b>ESLEIPEN-IRIZPIDEAK:</b></p>
	<p><b>Energia-efizientzia, 20 puntu arte</b></p> <p>7. [Lizitazioan enpresek beren eskaintzan proiektuaren oinarriko proposamena edo solairu edo eremu tipo baten proposamen xehatua aurkeztea eskatzen denean] Baloratuko da urteko LENI balioa, [definitu modu azkarrean edo osoan] kalkulaturatuta<sup>1</sup>, eskaintzarako ahalik eta baxuena izatea. Azken proiektuak ezingo du eskaintzan aurkeztutako LENI balioa gainditu.</p> <p><b>Egiaztapena:</b> Abal hau aurkeztu beharko da: 1 (ikus Egiaztapen-dokumentazioa).</p>
<p><b>EGIAZTAPEN-DOKUMENTAZIOA:</b></p>	
<p>1. Deskripzio-memoria</p>	<p>2. Fabrikatzailearen dosierra, testak eta fitxa teknikoak</p>

<sup>1</sup> Proiektuak nolabaiteko tamaina badu eta proiektu osoarentzako hasierako proposamen bat eskatzen bada, bertsio azkarra eskatzea gomendatzen da. Proiektua txikia bada edo solairu edo eremu tipo baterako proposamena aurkeztu behar bada, bertsio azkarra edo osoa eska daiteke.

**OHARRAK:**

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarria izan daiteke hainbat alternatiba aurkeztearekin eta alternatiba horien bizi-zikloaren kostuen aldakuntzekin zerikusia duten eskakizunak ere sartzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) webguneko **Erosketa publiko berdearen atala**, edo jarri zuzenean Ihoberekin harremanetan:

- Tel.: 94 423 07 43
- Helb. el.: [compra.publica@ihobe.eus](mailto:compra.publica@ihobe.eus)